

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure funtsezko jarduera produktuen banaketa izango da, hau da, banaketa-enpresa bat izango da, produktu ekologikoak saltzen dituen denda bat baikara. Handizkariei erositako produktuak gure bezeroei saldu baino lehen gure marka bereziko etiketekin etiketatuko ditugu. Gure enpresa funtziona dezan, publizitate kanpainak gauzatuko ditugu. Publizitate enpresa bat jarduera honetaz arduratuko da. Ikusgarritasun gehiago izateko, merkatu ekologikoetan gure produktuak salduko ditugu.

Gure enpresaren hazkuntza sustatzeko, oso garrantzitsua izango da gure webgunea, non gure enpresari buruzko informazioa eskainiko dugun eta gure dendan saltzen ditugun produktuak zerbitzu online-aren bitartez saldu ahalko ditugun.

Aldizkarien diseinua

-Astero, gure produktuak eskaintzeko, gure dendaren aldizkaria eskainiko diegu bezeroei, urtaroak kontuan hartuta, gure sektoreko joerak kontuan hartuta...

Efizientzia eta produktuen banaketa

Gure produktuak ahalik efizienteen saltzeko (kutxa erregistratzailearen azkartasuna, motorraren bidez produktuen banaketa...) gure enpresarekin konpremetitutako jendea beharko dugu, hau da, guria eta lan egiteko prest egongo diren pertsonak.

